


UNIBERTSITATEKO INDAR BATASUNA

BULEGOA



AURKIBIDEA

SARRERA.....	2
AZTERKETAK ZUZENTZEKO EPEA.....	2
IRAKASLE BAT FALTA BADA.....	3
KLASEAN LANTZEN EZ DIREN EDUKIAK AZTERKETAN SARTZEAZ	5
IKASGAI MATERIALAZ. IRAKASKUNTZA GIDA.....	6
EBALUAKETA EZ-JARRAITUA HARTZEKO AUKERA.....	8
IKASGAIZ ALDATZEKO EPEA.....	9
IKASGAI BAT SUSPENDITZEAN, GAINDITUTAKOA HURRENGORAKO GORDE AHAL IZANGO DA?	9
AZTERKETA BAT SUSPENDITU BADA, HAU GAINDITZEKO BESTE AUKERA BATZUK.....	10
GAINDITZE KOPURU MINIMOA	17
IRAKASLEEN JARRERA TXARRAK SALATZEKO PROZEDURA.....	18

SARRERA

Dokumentu honek ikasle langileok gure egunerokotasunean izan ditzazkegun arazo akademikoen inguruko informazioa barnebiltzen du.

Hain zuzen EHUko arautegian jasotako epe, prozedura eta zenbait eskubide jasotzen dira.

Hala ere, argi dago arazo hauen aurreko erantzun irmoena antolatzea dela, beraz, edozein arazo izatekotan jarri zaitzte gurekin harremanetan.

AZTERKETAK ZUZENTZEKO EPEA

Azken kalifikazioa gehienez ere egutegiko 12 egunetan argitaratu behar da, eta amaierakoak ez diren probak (praktikak, txostenak...) gehienez egutegiko 21 egunetan.

Araudia: Normativa Reguladora de la Evaluación del Alumnado Capítulo II, Artículo 17

17. artikulua. Behin-behineko kalifikazioak argitaratzea.

*"Deialdi ofizialeko ebaluazioaren kasuan, inplikaturako irakasleek jakinaraziko dute irakasgai bakoitzaren behin-behineko kalifikazioa, **ebaluzio-proba egiten den egun ofizialetik 12 egun naturaleko epean**, unibertsitateak gaitutako baliabide informatikoen bidez. Behin-behineko kalifikazioarekin batera, argi eta garbi adierazi behar da noiz argitaratu zen, kalifikazioak berrikus- teko eskaera-epea zenbatzeko.*

Kalifikazioak baliabide informatikoen bidez argitaratu beharrrak ez du eragozten, gainera, eGelan edo dagokion iragar-ki-taulan argitaratzea, eta, kasu horietan, ikasleak NANAren bidez bakarrik identifikatu behar dira.

Bukaerakoak ez diren ebaluazio-proben kalifikazioa gehienez 21 egun naturaleko epean jakinaraziko da, proba egin edo entregatzen den egunetik zenbatzen hasita."

IRAKASLE BAT FALTA BADA

Irakasle bat falta denean, baja hori betetzeko modua:

Araudia: ACUERDO de 17 de diciembre de 2020, del Consejo de Gobierno de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por el que se aprueba un nuevo Reglamento de asignación de docencia entre el Personal Docente e Investigador de la UPV/EHU.

<https://www.ehu.eus/documents/3087158/3126654/Nuevo+Reglamento+asignaci%C3%B3n+docencia+PDI+%28BOPV+03022021%29.pdf/ca2843a8-0a62-4f78-d5b6-dd5cd43bfdcd>

13. artikulua. – Irakaskuntza esleitzeko irizpide orokorrak.

1. – **Irakaskuntza-esleipena**, hasiera batean, indarrean dauden titulazioen ikasketa-planean **irakasle diren saileko irakasle eta ikertzaileen artean egingo da.**

2. – *Hala ere, sail baten irakaskuntza-gaitasuna nahikoa ez bada esleitura duen irakaskuntza-enkargu osoari erantzuteko, jakintza-arlo berdinak edo antzekoak dituen beste sail bateko edo batzuetako irakasle eta ikertzaileen-gana joko da.*

15., 16. eta 17. artikuluetan azaltzen da jarraitu beharreko prozedura:

15. artikulua gai edo irakasgai baten irakaskuntza sail batetik bestera transferitzeko prozesua deskribatzen du. Prozesua Irakasle eta Ikertzaileen errektoreordeak hasten du, eta Gobernu Kontseiluaren akordio batekin amaitzen da. Akordioak transferitzen diren gaiak edo irakasgaiak eta transferentziaren indarraldia zehaztu behar

ditu.

16. artikulua sail batetik bestera irakaskuntza aldi baterako esleitzeko prozesua deskribatzen du, **bi sailen arteko akordioa dagoenean**. Prozesua: txostenak eskatzea, Irakasle eta Ikertzaileen errektoreordeak proposamen bat egitea eta Gobernu Kontseiluak onartzea.

Gobernu Kontseiluaren erabakiaren aurka jar daitezkeen errekurtsioak ere deskribatzen dira.

17.artikuluak: *sail batetik bestera irakaskuntza aldi baterako esleitzeko prozesua deskribatzen du, bi sailen artean akordiorik ez dagoenean. Prozesua: txos-*

tenak eskatzea, sail defizitarioak edo graduako eta graduondoko ikasketen errektoreordeak proposamen bat egitea, eta Gobernu Kontseiluak onartzea. Gobernu Kontseiluaren erabakiaren aurka jar daitezkeen errekurtsioak ere deskribatzen dira.

Ebaluazio proben programazioa oztopatzen bada:

Araudia: Normativa Reguladora de la Evaluación del Alumnado en las titulaciones oficiales de Grado

<https://www.ehu.es/es/web/graduak/normativa/evaluacion-del-alumnado-en-las-titulaciones-oficiales-de-grado>

11. artikulua.- Ebaluazio-proben plangintza eta garapena

"1.- Ebaluazio-proben programazioa ezin izango da aldatu, salbu eta, gerora sortutako ezintasunagatik, ezinezkoa bada ezarritakoaren arabera egitea. Salbuespenezko egoera horien aurrean, titulazioen arduradu-

nek kontsulta egokiak egingo dizkiete eragindako irakasleei eta ikasleei, zuzenean edo ordezkarien bitartez, gehienez ere 5 eguneko epean programazio berri bat proposatzeko."

Ondorioz, ikasgai bateko irakasleren bat falta bada, ulertu daiteke ikaslearen hezkuntza prozesua oztopatzen ari dela eta beste ebaluazio irizpideren bat adostu daitekeela sailarekin.

KLASEAN LANTZEN EZ DIREN EDUKIAK AZTERKETAN SARTZEAZ

Ikasgaien ebaluazioa ezin da irakasleak klasean landu ez dituen gaien inguruan izan. Alegia, eduki hori irakasgaiaren hasierako programan agertzen bada baina irakasleak ez badu klasean ematen, ezin izango du azterketan sartu.

Araudia: Normativa de gestión para las enseñanzas de grado para el curso 2024-25

<https://www.ehu.es/es/web/graduak/normativa/gestion-para-las-enseñanzas-de-grado/planificacion-docente-y-evaluacion-del-alumnado>

49.art: Prestakuntza programa eta irakaskuntza gida

"2. Irakasgai bakoitzeko irakaskuntza-gida bakarra izango da, eta gutxienez honako hauek jasoko ditu: prestakuntza-helburuak, programa, programatutako jarduerak, ebaluazio-sistema eta ebaluazio-irizpide eta -adierazle espezifikoak, proba bakoitzaren haztapena barne, hala badagokio. Lotura koherentea egon behar da prestakuntza-helburuen, programatutako jardueren eta ebaluazio-irizpideen artean, eta ikasketa-planean onartutakoarekin bat etorri behar du. Ikasgaiaren oinarrizko programa taldeetako irakasle arduradunen artean adostu behar da. Akordio hori lortu ezean, Sail Kontseiluak, inplikaturako irakasle guz-

tiei entzun ondoren, gai komunei eta onartutako salbuespenei buruzko erabaki arrazoitua hartuko du. Titulazio jakin bateko irakasgai bat hainbat sailek ematen badute (ikastetxe edo atal desberdinetan), oinarrizko programa sailen artean adostu beharko da.

Zuzenean ikastetxe baten mende dauden irakasgaien edo ikasgaien kasuan, dagokion irakaskuntza-gida ikastetxeko batzordeak onartu beharko du.

**Irakasgaiaren ebaluazioa ezin-
go da egin kasuan kasuko irak-
asleek landu ez dituzten gai-
buruz, nahiz eta irakasgaiaren
hasierako programan jaso."**

IKASGAI MATERIALAZ.

IRAKASKUNTZA GIDA

Klasean irakasleak landu behar dituen edukiak irakasgaiaren irakaskuntza gidan egon behar dira argitaratuta kurtso hasierako lehen astean eta onartutako ikasketa planarekin bat etorri behar da; hau da, irakasleak ezin izango ditu bere kabuz, nahi dituen edukiak eman eta ondoren azterketan sartu.

Izan ere, irakaskuntza gida irakasgai horretako irakasleen artean onartu behar dute eta beraien artean desadostasunak egonez gero, sail horretako gainerako kideen artean adostu beharko dute. Sail desberdinen artean ematen badute irakasgai bera, sail desberdin horien artean adostu beharko dute.

Artikuluaren azken zatiak aipatzen du zuzenean ikastegi baten mende dauden ikasgaien kasuan, dagokion irakaskuntza-gida ikastetxeko batzordeak onartu beharko du, (kontuan izan behar da sail bat hiru kanpusen artean osatuta egon daitekela). Bestaldetik, ez da aipatzen irakasgai batez irakasle bakar batek arduratzen bada zer gertatuko litzaitekeen, baina interpretatu dezakegu bere saileko gainerako kideen artean edota ikastegi batzordearen artean adostu beharko duela irakasgai horren gida, erabaki autoritarioa izan ez dadin.

Araudia: Normativa de gestión para las enseñanzas de grado para el curso 2024-25

<https://www.ehu.es/es/web/graduak/normativa/gestion-para-las-en-senanzas-de-grado/planificacion-docente-y-evaluacion-del-alumnado>

49.art: Prestakuntza programa eta irakaskuntza gida

"1. 2024ko ekainaren 1erako, ikastetxeak bere webgunean argitaratuta eduki behar du titulazioen plangintzari buruzko informazioa. Informazio horrek, gutxienez, ikasle bakoitzak ECTS terminoetan ikaskuntzan eta ikaskuntzan duen dedikazioari buruzkoa izan behar du, aurreikusitako irakasleak eta irakasgai bakoitzerako aurreikusitako ordu-banaketa zehaztuta.

*Epe horretan bertan, ikasle guztien eskura jarriko du, webgunean argitaratuta, departamentuek ikastetxeko titulazioan edo titulazioetan ematen den irakasgai bakoitzari buruz onartutako irakaskuntza-gida, bai eta ebaluazio-proben eta beste irakaskuntza-jarduera batzuen egutegia ere. **Irakasgai bakoitzaren irakaskuntza-gida e-Gelan argitaratu beharko da irakaskuntzako lehen astean, eta eskuragarri egongo da ikasturtea amaitu arte, ikasleek eskura izan dezaten.**"*

"2. Irakasgai bakoitzeko irakaskuntza-gida bakarra izango da, eta gutxienez honako hauek jasoko ditu: prestakuntza-helburuak, programa, programatutako jarduerak, ebaluazio-sistema eta ebaluazio-irizpide eta

*adierazle espezifikokoak, proba bakoitzaren haztapena barne, hala badagokio. Lotura koherentea egon behar da prestakuntza-helburuen, programatutako jardueren eta ebaluazio-irizpideen artean, eta **ikaske-ta-planean onartutakoarekin bat etorri behar du. Ikasgaiaren oinarritzko programa taldeetako irakasle arduradunen artean adostu behar da. Akordio hori lortu ezean, Sail Kontseiluak, inplikaturako irakasle guztiei entzun ondoren, gai komunei eta onartutako salbuespenei buruzko erabaki arrazoitua hartuko du. Titulazio jakin bateko irakasgai bat hainbat sailek ematen badute (ikastetxe edo atal desberdinetan), oinarritzko programa sailen artean adostu beharko da.***

Zuzenean ikastetxe baten mende dauden irakasgaien edo ikasgaien kasuan, dagokion irakaskuntza-gida ikastetxeko batzordeak onartu beharko du.

Irakasgaiaren ebaluazioa ezingo da egin kasuan kasuko irakasleek landu ez dituzten gaiak buruz, nahiz eta irakasgaiaren hasierako programan jaso."

EBALUAKETA EZ-JARRAITUA HARTZEKO AUKERA

Lauhileko bakarreko ikasgaietan 9 asteko epea egongo da ebaluaketa ez-jarraitua hartzeko eta urte osoko ikasgaien kasuan 18 astekoa. Irakaskuntza gidan zehazten badu, epea handitu daiteke, baina ez murriztu.

Araudia: Normativa Reguladora de la Evaluación del Alumnado en las titulaciones oficiales de Grado

<https://www.ehu.es/es/web/graduak/normativa/evaluacion-del-alumnado-en-las-titulaciones-oficiales-de-grado>

8. artikulua- Ebaluazio sistemak

"3.- Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu behar-ko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, 9

**asteko epea izango du lauhile-
koko irakasgaien kasuan edo 18
astekoa urteko irakasgaienean,**
ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa edo ikasturtea hasten denetik kontatzen hasita. Irakasgaiaren irakaskuntza gidan epe luzeagoa ezarri ahal izango da."

IKASGAIZ ALDATZEKO EPEA

Fakultate bakoitzak berezko epeak ditu, baina orokorrean ikasturtea hasten denetik astebeteko epea dago matrikulan horrelako aldaketak egiteko. Fakultate bakoitzak "Matrikula aldaketa" atal bat du, data hauek zehaztuz. Epe honen ondoren, ezin dira aldaketak egin, GRALaren matrikulak salbu.

IKASGAI BAT SUSPENDITZEAN, GAINDITUTAKOA HURRENGORAKO GORDE AHAL IZANGO DA?

Ikasleek ohiko deialdian izandako emaitza positiboak gorde ahal izango dira, eta ezohiko deialdian kontuan hartu. Negatiboak, aldiz, ez.

Araudia: Normativa Reguladora de la Evaluación del Alumnado en las titulaciones oficiales de Grado

<https://www.ehu.eus/es/web/graduak/normativa/evaluacion-del-alumnado-en-las-titulaciones-oficiales-de-grado>

9.art: Ebaluazioa ezohiko deialdian.

"1.- Ohiko deialdian irakasgaia gainditzen ez duten ikasleek, deialdi horretan aukeratutako ebaluazio-sistema edozein dela ere, deialdi bereziko azken ebaluazio-proban jasotako azterketetara eta ebaluazio-jardueretara aurkezteko eskubidea izango dute.

2.- Ezohiko deialdietako irakasgaien ebaluazioa amaierako ebaluazio-sistemaren bidez baino ez da egingo.

3.- Ezohiko deialdiaren amaierako ebaluazio-probak definitutako ikaskuntza-emaitzak ebaluatu eta neurtu ahal izateko

beharrezkoak diren azterketa eta ebaluazio-jarduera guztiak izango ditu, ohiko deialdian ebaluatu ziren bezala. Ikasturtean zehar ikasleek lortutako emaitza positiboak gorde ahal izango dira. Ikasturtean zehar eginda-

ko etengabeko ebaluazioaren bidez emaitza negatiboak lortu badira, emaitza horiek ezin izango dira mantendu ezohiko deialdirako, eta ikasleek kalifikazioaren % 100 lortu ahal izango dute deialdi horretan."

AZTERKETA BAT SUSPENDITU BADA, HAU GAINDITZEKO BESTE AUKERA BATZUK

BERRIKUSPENA

Azterketa egin ostean argitaratzen den lehenengo nota behin-behinekoa da, hau da, ez da definitiboa eta alda daiteke. Kalifikazio hori ezartzearekin batera, berrikuspenerako eguna, ordua eta lekua zehazten da aldi berean. Berrikuspeneraren eguna behin-behineko nota argitaratu eta 3, 4, 5 edo 6 egun naturalera izango da. Adibidez ostiral batean behin-behineko nota argitaratuz gero, hurrengo asteko astelehen, asteartean, asteazken edo ostegunean izango da berrikuspenerako eguna. Berrikuspenean ikasleak egindako azterketa ikusteko aukera izango du eta irakasleak haren zuzenketaren arrazoiak emango dizkio ikasleari. Berrikuspenera joateko aukera izan ezean, justifikatu beharko da, eta irakaslearekin adostu beharko da berrikuspenerako beste egun bat.

Araudia: Normativa Reguladora de la Evaluación del Alumnado en las titulaciones oficiales de Grado

<https://www.ehu.eus/es/web/graduak/normativa/evaluacion-del-alumnado-en-las-titulaciones-oficiales-de-grado>

18. artikulua.- Kalifikazioak berrikustea

"1.- Behin-behineko kalifikazioa argitaratzean, kalifikazioa irakasgaiaren ardura duen irakasle edo koordinatzailearekin berrikusteko eguna, tokia eta ordua zehaztu beharko da; berrikuspenerako epea, bestalde, gutxienez hiru egun naturalekoa eta gehienez seikoa izango da, kalifikazioa argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

2.- Berrikuspena pertsonala eta banakakoa izango da eta bertan, ikasle bakoitzak eskura izango du dagokion ebaluazio proba; horrez gain, lortutako kalifikazioari buruz eman beharreko azalpen guztiak emango zaizkio ikasleari ahoz eta, behar izanez gero, dibertsitate funt-

zionala duten pertsonen premia espezifikotara moldatuta.

3.- Ebaluazioa epaimahai bidez egin bada, ikasle ebaluatuak eskubidea izango du ariketak epaimahaiaren aurrean berrikusteko.

4.- Ikaslea ezin bada berrikuspenera joan behar bezala justifikatutako arrazoi pertsonal larriengatik edo arrazoi akademikoengatik, berrikuspena beste egun batean egiteko eskubidea izango du. Egun hori irakaslearekin adostu beharko du, edo, hala badagokio, epaimahaiarekin, lehen aipatutako epearen barruan."

EZOHIKO DEIALDIA

Ohiko azterketaren berrikuspenaren tarte bukatu ostean, irakasleak aktak sinatuko ditu eta behin-betiko nota argitaratuko da. Horren ostean, irakasgaia gainditzeko bigarren aukera bat izango duzu ezohiko deialdia izeneko. Bigarren deialdirako ikasturtean zehar gainditutako atalak gordeko dira. Hala ere, bigarren deialdian azterketa suspenditzekotan, ez da deialdi gehiagorik izango, berriz ere irakasgai horretan matrikulatu arte. Ikasle batek irakasgai bateko 6 deialditara aurkezteko aukera izango du.

Araudia: Normativa Reguladora de la Evaluación del Alumnado en las titulaciones oficiales de Grado

<https://www.ehu.es/es/web/graduak/normativa/evaluacion-del-alumnado-en-las-titulaciones-oficiales-de-grado>

9. artikulua.- Ebaluazioa ezohiko deialdian

"1.- Irakasgaia ohiko deialdian gainditzen ez duten ikasleek, hautatutako ebaluazio sistema gorabehera, eskubidea izango dute ezohiko deialdiko azken ebaluazioko proba osatzen duten azterketa eta jardueretara aurkezteko.

2.- Ezohiko deialdietan irakasgaiak ebaluatzeko sistema bakarra azken ebaluazioa izango da.

3.- Ezohiko deialdiko azken ebaluazioko probak definituta dauden ikaskuntzaren emait-

zak ebaluatzeko eta neurtzeko behar beste azterketa eta ebaluazio jarduera izango ditu, emaitzok ohiko deialdiaren pareko baldintzetan ebaluatu ahal izateko. Ikasleek ikasturtean zehar eskuratutako emaitza positiboak gorde ahal izango dira. Aldiz, ikasturtean zehar egindako etengabeko ebaluazioaren emaitzak negatiboak badira, emaitzok ezin izango dira ezohiko deialdirako mantendu eta deialdi horretan ikasleek kalifikazioaren %100 eskuratu ahal izango dute."

IKASKETA AMAIERAKO DEIALDIA

Ikasle bati gradu bat bukatzeko 30 kreditu edo gutxiago falta bazaizkio, amaierako ebaluazioa eskatzeko aukera izango du. Hau da, bigarren lauhileko ikasgaien azterketa aurreratzeko aukera izango du ikasleak, lehenengo lauhilekoko azterketaldian eginez. Ezingo da inoiz deialdi hau lehenengo aldiz matrikulatutako ikasgai batean eskatu

Araudia: Normativa Reguladora de la Evaluación del Alumnado en las titulaciones oficiales de Grado

<https://www.ehu.es/es/web/graduak/normativa/evaluacion-del-alumnado-en-las-titulaciones-oficiales-de-grado>

10. artikulua.- Ikasketa amaierako deialdia

"Ikastegi bakoitzak zehaztuko ditu ikasketa amaierako azterketei buruzko arauak, baina, gutxien dela, ondokoa ezarriko da ikasketa guztietarako:

1.- Lehenengo matrikulakoak ez

diren irakasgaietan baino ezingo da ikasketa amaierako deialdirako eskaria egin. Salbuespen bakarra izango da Gradu Amaierako Lana.

2.- Ikasketa amaierako deialdi-

rako eskaria egin ahal izango dute ikasketak amaitzeko gehienez ere 30 kreditu falta dutenek, ondorio hauetarako kontuan izan gabe Gradu Amaierako Lanari dagozkion kredituak.

3.- Azterketak matrikularen ara-

bera irakasgai, talde eta deialdiaren ardurak daukaten irakasleek egingo dizkiete eskatzaileei.

4.- Ikasketak amaierako azterketak ebaluatzeko erabiliko den sistema azken ebaluazioa izango da."

ERREKLAMAZIOA

Behin betiko notarekin ados ez dagoen ikasleak erreklamazio idatzi bat aurkez diezaioke sailari, non beste hiru irakaslez osatutako epaimahai batek zuzenduko duen azterketa. Sailaren erantzunarekin ados ez egotekotan, ikasleak ikastegiko dekanok edo zuzendariari idatzi ahalko dio, sailaren erantzuna jaso eta 4 egunetara asko jota.

Araudia: Normativa Reguladora de la Evaluación del Alumnado en las titulaciones oficiales de Grado

<https://www.ehu.es/es/web/graduak/normativa/evaluacion-del-alumnado-en-las-titulaciones-oficiales-de-grado>

22. artikulua.- Kalifikazioei buruzko erreklamazioak egiteko prozedura

"Honako prozedura hau beteko da:

a) Sailari erreklamazioa aurkeztea.

Ikaslea ez badago ados berrikuspeneren emaitzarekin, erreklamazio idatzia aurkeztu ahal

izango dio saileko zuzendariari sei egun naturaleko epean, aktak argitaratu ziren egunetik hasita. Azken kalifikazioen berrikusketei eta zuzenketei buruzko erreklamazioak ebazteko, sail bakoitzak gutxienez erreklamazio batzorde bat izendatuko du jakintza

arloan bakoitzeko. Batzordea osatuko dute hiru irakasleak eta haien ordezkoeak, eta ikastegiko Ikasleen Kontseiluko buruak edo hark eskuordetutako ikasleak. Batzordeburua irakasle iraunkor bat izan beharko da. Ezin izango dira batzordeko kide izan aurreko ebaluazio prozesuan parte hartu duten irakasleak. Batzordeak erreklamazioa aztertuko du eta, taldeko irakaslearen, edo hala badagokio, epaimahaiaren txostena jaso, egokitzen jotzen dituen ekintzak burutu eta erreklamazio egileari entzun ondoren, erreklamazioari buruzko erabaki arrazoitua emango du,

gehienez ere, zortzi egun naturaleko epean, erreklamazioa jarri zen egunetik zenbatzen hasita.

Kalifikazioa aldatu behar izanez gero, aldaketa batzordeko irakasleek onartuko dute adostasunez, edo, behar izanez gero, bozketa bidez edo batez besteko nota kalkulatuta. Kasu horretan, akta zuzendu egingo da ikastegiko idazkariaren diligenziaren bidez. Batzordeak erabakiaren berri emango die ikasleari, taldeko irakasleari eta ikastegiko idazkariari jakinaren gainean egon daitezen.

b) Ikastegiari erreklamazioa aurkeztea.

Ikaslea ez badago ados sailari aurkeztutako erreklamazioaren inguruan hartutako erabakiarekin, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dio, idatziz, ikastegiko dekanoko edo zuzendariari, lau egun naturaleko epean, saileko batzordearen erabakiaren jakinarazpena jasotzen denetik hasita (bermatu egin beharko da epe horretan, gutxien dela, bi lanegun egongo direla).

Ikastegi bakoitzean erreklamazio batzorde bat eratuko da gutxienez, eta batzorde horretan, gutxien dela, honako kide hauek egongo dira: batzordeko burua, idazkari bat eta irakasle bat. Ezin izango dira batzordeko kide izan erreklamazioa aurkeztu

duen ikasleak lortutako kalifikazioan era batera zein bestera parte hartu duten irakasleak.

Epaimahai honen bileretara ikastegiko Ikasleen Kontseiluko burua edo hark eskuordetutako ikaslea joango da. Atalak dituzten ikastegien kasuan, batzorde desberdinak eratu ahal izango dira ikastegiaren egoitzan eta atal bakoitzean. Kasu horretan, batzordea nongoa, kideak hangoak izan beharko dira eta batzordeko bileretara egoitzako edo ataleko Ikasleen Kontseiluko ordezkaria joango da (kasuan-kasuan dagokiona), edo hark eskuordetutako ikaslea. Batzorde horrek, hamar egun naturaleko epean gehienez ere eta behar diren txostenak eskatu ondoren, kasua aztertu eta erabaki arrazoitua hartuko du. Ikasleari eta ikastegiko idazkariari jakinaraziko die erabakia, jakinaren gainean egon daitezen eta behar diren ondorioak sor ditzan, baita saileko zuzendariari ere, hark taldeko irakasleari helaraz diezaien. Kalifikazioa aldatzea erabakiz gero, aldaketa batzordeko irakasleek onartuko dute adostasunez, edo, behar izanez gero, bozketa bidez edo batez besteko nota kalkulatuta. Kasu horretan, akta zuzendu egingo da ikastegiko idazkariaren diligenziaren bidez."

BESTE PROBA BAT EGITEA

Badago beste proba bat egiteko aukera ematen duten kasu batzuk:

- a) Azterketaren eduki batzuk programan ageri ez dira edo irakasleak klasean landu ez ditu.
- b) Irakasleak ikasleak azterketa egin aurretik ezagutzen ez duen ebaluazio sistema bat erabili du.
- c) Irakasleak beharrezko titulazioa ez badu.
- d) Ikaslearen baldintza fisiko edo beste baldintza batzuegatik, azterketa ezin du normaltasunez egin.
- e) Ikastegiko Erreklamazio Batzordearen ustez normalean baino suspentso askoz gehiago egon dira.
- f) Ebaluazio egunean ikaslea bera edo haren lehen mailako odolkitetasuna duen senidea ospitalean egon da. Irakasleri jakinarazi behar zaio, asko jota, azterketa eguna eta 2 egun beranduago. Ziurtagiria aurkeztu behar da.
- g) Lehen edo bigarren mailako odolkitetasuna daukan senidea hil da azterketa egunean edo aurreko lau egunetan. Irakasleri jakinarazi behar zaio, asko jota, azterketa eguna eta 2 egun beranduago. Ziurtagiria aurkeztu behar da.

Araudia: Normativa Reguladora de la Evaluación del Alumno en las titulaciones oficiales de Grado

<https://www.ehu.eus/es/web/graduak/normativa/evaluacion-del-alumnado-en-las-titulaciones-oficiales-de-grado>

25. artikulua.- Beste proba bat egitea

"Ikasleak beste proba bat egiteko eskubidea izango du honakoetan:

a) Azken kalifikazioa jartzeko probaren zati bat programan ageri ez ziren gaien ingurukoa izan bada edo, programan agertu arren, irakasleak landu ez

zituen gaien ingurukoa.

b) Probak egin aurretik ikasleak ezagutzen ez zuten ebaluazio sistema erabili badu irakasleak.

c) Irakasleak venia docendi-rik ez badu.

d) Ezinbestez, baldintza fisiko edo bestelakoengatik, ikasleek ezin izan badute proba normaltasunez egin. Horrelakoetan, irakasleak egoera aztertuko du eta bere sailaren oniritziarekin eta ikastegiarekin koordinatuta, probak egiteko beste egun bat izendatu ahal izango du, har daitezkeen bestelako neurri bereziak baztertu gabe.

e) Ikastegiko Erreklamazio Batzordeak hala erabakitzen duenean, azterketaren emaitzak anormalak iruditzen zaizkiolako, suspentsoen kopuru askoz ere handiagoa egon delako arrazoiz espero zitekeena baino irizpide akademikoak kontuan hartuta, hots, titulazioaren testuingurua eta kasuan kasuko irakasgaiak.

f) Ebaluazio egunean ikaslea ospitaleratuta badago edo lehen mailako odolkidetasuna daukan senidea badago egoera horretan; egoera hori behar bezala egiaztatu beharko du osasun agiri egokiak aurkeztuta.

g) Lehen edo bigarren mailako odolkidetasuna daukan senideraren heriotza azterketa egunean edo aurreko lau egunetan; egoera egiaztatzeko beharrezko diren agiriak aurkeztu beharko dira.

f) edo g) ataleko egoeraren batean dagoen ikasleak egoeraren berri izan bezain laster jakinarazi beharko dio irakasleari, eta gehienez ere, bi egun naturaleko zehaztutako egun ofizialaren biharamunetik kontatzen hasita.

Beste probarako zehaztutako eguna baino lehen aurkeztu beharko du egiaztagiria. Beste proba kasuan kasuko deialdirako zehaztutako epe ofizialaren barruan egin beharko da edo beste data batean, baina, edozelan ere, arautegi honetan kalifikazioak argitaratzeko zehaztutako epeak bete beharko dira."

GAINDITZE KOPURU MINIMOA

Errektoreordetzak kalifikazioak berrikusita, neurri egokiak hartuko dituzte emaitza horiek emaitza orokorren desbiderapena dakarten kasuetan. Gainera, ikasle bakoitzak beste proba bat egiteko eskubidea izango du baldin eta Ikastetxeko Erreklamazio Batzordeak hala erabakitzen badu etendako eta etendako ikasle guztien indizean ezohiko emaitzak detektatu direlako, eta emaitza horiek ez badatoz bat irizpide akademikoak kontuan hartuta arrazoizkoak diren emaitzeekin, hau da, titulazioaren testuinguruarekin eta inplikaturako esleipenekin.

Araudia: Normativa de Gestión Académica 2013/2014

53. artikulua.-

"1- Ikastetxeko zuzendariaren, dekanaren aurrean aurkeztuko dira ustezko anomaliei buruzko salaketak. Irakaskuntzen egituraketa, garapena edo ebaluazioa ez betetzea. Horren berri organo eskudunei emango zaie, eta dagozkion kautelazko neurriak hartuko dira.

2.- Sistematikoki, Gradu eta Berrikuntzako Ikasketen Errektoreordetzak ikasleek UPV/EHUko titulazioetako irakasgaietan lortutako emaitza akademikoak

aztertuko ditu. Horrela, kalifikazio horiek ikusita, neurri egokiak hartuko dira emaitza horiek emaitza orokorretatik desbideratzea dakartenean. Hartutako neurrien berri emango zaio UPV/EHUko Ikasle Kontseiluari.

3.- Zuzendarien, dekanoen eta zentroko batzarren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke errektoreari, eta haren ebazpenek amaiera emango diote administrazio-bideari."

Baina, gainera, aurreratu dugun bezala, 49.5 artikulua ezartzen du ikasle bakoitzak eskubidea izango duela beste proba bat egiteko honako kasu honetan:

"betiere Ikastetxeko Erreklamazio Batzordeak hala erabakitzen badu, gainditu ez duten eta gainditu ez duten ikasleen indizean emaitza anormalak aurkitu dituelako, irizpide akademikoak kontuan hartuta arrazoiz gerta zitezkeenekin bat ez datozenak; hau da, titulazioaren testuingurua eta inplikaturako irakasgaiak".

IRAKASLEEN JARRERA TXARRAK SALATZEKO PROZEDURA

IKASTEGIARI JAKINARAZTEA

Kexak idatziz egingo dira, eredu normalizatuaren arabera halik eta era zehatzenean (data eta ordua zehaztuz). Ikasleak ikastegiari kexaren jatorria ekidin nahi badu, ikastetxeko Ikasle Kontseiluko buruari zuzenduko dio (bere gainhartuko du, informazioa kontrastatu ondoren). Ikasleen Kontseiluak datuak babesteari buruzko legearen arabera erabili beharko ditu ikasleak emandako datuak. Ikastegiak, bi egun baliodunen epean, erantzun bat eman beharko dio kexak bere egin duen Ikasleen Kontseiluko buruari edo, hala badagokio, kexa zuzenean egin duen ikasleari. Kexa eskoletara edo ebaluazio-proba ofizialetara ez joateagatik jarri bada, Ikastegiak, gehienez, 24 orduko epea izango du kexa egiaztatzeko eta erantzuteko.

Dokumentua:

<https://www.ehu.eus/es/web/graduak/normativa/reglamento-del-alumnado-de-la-upv-ehu/anexo-i/documentos>

IRAKASLEEN ERREKTOREORDETZARI JAKINARAZI

Erantzunarekin pozik ez bazaude edo epemuga betetzen ez bada, jarri harremanetan irakasleen errektoreordetzarekin. Irakasleen Zuzendaritzan/Ikuskaritza Zerbitzuan salaketa aztertu ondoren, oinarririk baduen egiaztatuko da, eta 10eguneko epea emango zaio IIP (irakasle eta ikertzaile) taldeari alegazioak egiteko, ikasleen anonimotasuna mantenduz. Gaia ebatzi ondoren, horren jakinarazpena igorriko da ikastegira, ikasleak adieraziko helbidera edo kexa bere egin duen Ikasleen Kontseilura (Ikaslee Kontseilua kexa jarri duen ikasleari helaraziko dio).

Dokumentua:


<https://www.ehu.eus/es/web/graduak/normativa/reglamento-del-alumnado-de-la-upv-ehu/anexo-i/documentos>


Araudia: Reglamento del alumnado UPV/EHU

<https://www.ehu.eus/es/web/graduak/normativa/reglamento-del-alumnado-de-la-upv-ehu/anexo-i/protocolo-de-quejas>



UIB
UNIBERTSITATEKO
INDAR BATASUNA

 @uib_nazionale

 @UIBnazionale